# ZERTAN ZINEN HEMEN?



Uda da, eta aire girotua matxuratu egin da ikastetxeko bulegoetan. Bat-batean, idazkaria ohartu da lapurtu egin diotela mahai gainean zeukan memoria-arkatz edo pendrivea. Eta bertan zeuden grabatuta azterketetako galderak! Zuzendariak galdeketa egin die une hartan bulegoan zeuden guztiei: "Zertan zinen hemen?".



1 "Ni telefonoz ari nintzen eta aldi berean hainbat jenderi atenditzen", erantzun dio idazkariak.




2 "Ni enkargu batzuk apuntatzen ari nintzen", esan dio mezulariak.



3 "Ni idazkariari galdetzen ari nintzen ea nire jertsea ikusi duen", azaldu dio praktiketan dabilen administrariak.




4 "Ni fotokopia eske etorri naiz", baieztatu dio batxilergoko ikasle batek xalo-xalo.



NORK HARTU DU???